

### III. taldea

#### AMIA

Kilometroak jaiaren indar-gune, ahulgune eta mehatxu naiz aukeren zerrenda luzea egin arren ideia ardatz batzuk nagusitzen dira. Horrela, indar-guneen zutabeen, **tresna indartsua, marka errotua edo indar agerraldi** bezalako kontzeptuak aipatu daitezke. Horiek indar-gune. Aldiz, ahulguneez ari garelarik hitz gakoa, **mezua** da. Kilometroak tresna sendoa da, marka errotua baina transmititzen dena lausoa da. Mezu eskasa, ahula. Ikastola zer da? nor gara? Nolakoak gara, zer egiten dugu eta zerk bereizten gaitu? Horiek adierazteko aukera eskaintzen du ekimenak baina ez da baliatzen ongi. Mugimendua agerrarazi behar eta ez da asmatzen.

Horra hor ahulguneen zutabeko ideia nagusia. Ideia ardatzetatik haratago zabaldu dira ordea beste batzuk ere, segidan zerrendaturik dauden hauek:

#### Indar-guneak

- Gizartean erroturik dagoen ekimena da.
- Tresna (marka) indartsua da, sendoa.
- Indar erakustaldi edo agerraldia da. Dugun indarra erakusten da.
- Gizartean ikusgarri egiten gaitu. Bisibildadea.
- Halako jaien antolaketan aitzindaritzza du.
- Boluntarioak. Boluntarioen erantzuna.
- Jendearen inplikazioa. Ikastola komunitatearen erantzuna lanerako deiari.
- Asistentzia. Jende askok erantzuten du jaira bertaratuz.
- Ikastola mugimenduaren kohesiorako onuragarria. Harremanak lantzeko egokia, barne kohesiorako lagungarria.
- ...

#### Ahulguneak

- Mezua. Luzatzen den mezua eskasa da. Gabeziak komunikatu beharreko edukia azaltzerakoan, mamian. Mezuarekin ez da asmatzen.
- Antolaketa eredu zurrunegia. Estandarizaturiko jaia da.

- Jai hutsa bezala ulertua da, (*berriz mezua*)elkartasun eta aldarrikapen kontzeptuak hein handi batean galtzear dira. Ikastola izaera ahantzi eta jai huts gisa ikusten dute askok.
- Dimentsioa. Handiegia. Horrekin loturik, esfortzu larregi suposatzen du jasotzen den emaitzerako.
- Lokalistegia. Jaia ospatuko den herritik irten eta herrialdeko dimentsiora zabaldu ordez oso jai lokala ei da.
- Ekonomiak pisu larregi du, kontsumoan oinarrituriko jaia.
- Eskaintza berririk ez izatea. Produktu falta.
- Rutina. Egitarau monotonoa. Urtero jaia ia errepikatzea.
- Neurri gabeko kontsumoa (alkohola) eta gazteak.
- ...

Aukerak eta mehatxuak ere ikusten zaizkio Kilometroak jaiari. Aukeren esparruko ideia ardatza, sarritan errepikatu dena, kohesioa da. Ikastolen artean eta ikastola bateko komunitateko kideen artean kohesiorako tresna bikaina da Kilometroak. Batetik, Ikastolen arteko konpromisoa, lankidetzat garatzeko aukera eskaintzen du. Bestetik, ikastola baten estamentu desberdinen (gurasoak, langileak, ikaslek ikasle-ohiak...) arteko barne kohesioentzat tresna baliagarria da. Mehatxu edo arriskuen atalean ez da ideia ardatzik nabarmendu, bat aipatze aldera ordea, akaso aipatu daiteke gizartean den hezkuntza publiko eta pribatuaren eztabaida arriskutzat har daitekeela, horren aurrean erantzun eta posizio argia finkatzen ez bada.

Ez dira horiek ordea etorkizunari begira jarrita kilometroak jaiarengan aipatu diren aukera eta mehatxu bakarrak, beste zenbait ere aipatu dira. Hona segidan beste zenbait:

### **Aukerak**

- Kohesioa. Ikastolen komunitatea trinkotzeko aukerak eskaintzen ditu jaiak eta trinkotze hori bera jaiaren etorkizunerako onuragarria izanen da.
- Ikastolak garen hori adierazteko tresna baliagarria da, eraginkortasunez baliatzea da gakoa. Horregatik hor ere jaiaren etorkizunerako aukerak ikusi dira.

- Jai eredia egokitzen joatea. Hitzaldiak, eztabaida foroak, bestelako jai eredu batean aukerak zabalduko dira. (EHZ jaialdiaren adibidea jarri da)
- Ikastolen parte hartzean aukerak daude. Antolatzailea den ikastolatik haratago guztien konpromisoa, kolektibitatea jorratzean etorkizunerako aukerak ikusten dira.
- Ikastolon Kooperatiba izaera aukeren zerrenda honetarako beste ideia garrantzitsua da. Izaera hori azpimarratu eta indartzea gakoa da, batez ere “publiko-pribatu” eztabaidari aurre egiteko.
- Formakuntza. Ikastolen komunitatearen formakuntzarako Kilometroak urtea oso egokia izan daiteke. Formakuntzaren ildotik aukerak azalera dira.
- Beste esparruetako eragileekin sinergiak probesteko aukerak eskaintzen ditu jaiak. Bestelako elkarte, talde edo eragileekin lankidetzak garatzearen bidetik aukerak irekitzen zaizkio Kilometroaki.
- Familiak ardatz hartu eta hor ere aukerak ikusi dira. Familia da beste hitz gako bat aukeren atalean.
- ...

### Mehatxuak

- Egunaren errentagarritasuna. Eguna bera errentagarria izango ez den unetik jaia bera zalantzan egonen da.
- Masifikazioa
- Egungo gizartean auzolanak, boluntario lanak, bizi duen krisia.
- Masa ekitaldietan izaten den arriskua gertakari itsusiak gertatzekoak, neurri gabeko alkohol kontsumoarekin loturikoak.
- Egungo gizartearen konplexutasuna.